

MOZIO ARRUNTA

ESCALERILLAS INGURUAREN IRISGARRITASUNA DELA ETA

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Escalerillas inguruaren irisgarritasuna dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Herrera eta Oleta artean, Escalerillas deituriko pasabidea dago, Altzako eremu hori Pasaiaiko portuarekin eta Trintxerpe barrutiarekin lotzen duena. Altzatar eta pasaitar askok erabiltzen dute pasabidea beren komunikazio beharretarako, bertan baitaude autobus geltokiak, bidegorria eta Herrerako tren geltokietara doan bidea. Oletako eta Buenavistako bizilagunentzako azpiegitura garrantzitsua da, harreman pertsonal, lanekoak edota ekonomikoak errazteaz gain, aisiarako aukera eskaintzen dielako auzo aldapatsu horietako bizilagunei.

Azpiegitura horrek, ordea, ez du oinezkoen irisgarritasuna bermatzen, Hospitalilloko kaia Portuko eremuko errepidearen gaineratik doan pasabide baten bidez lotzen baita Pasaiaiko portuko zeharbidearekin, baina ez dago igogailurik, ezta arrapalarik ere. Gainera, toki askotan hondatuta ageri da porlana, mantentze lanik ez baitzaio egiten.

2018an, Portuko Agintaritzak behin betiko onespena eman zion Pasaiaiko Portuaren Zerbitzugunea Antolatzeke Plan Bereziaren Berrikusketari. Plan horretan ageri da, La Herrera eremurako proposatzen dituzten esku hartzeen artean, Hospitalillo kaian plaza ireki bat antolatzeke asmoa. Proposamen horretan aurreratzen da Escalerillaseko pasabidea Hospitalilloko plazarekin plano inklinatu baten bidez lotzeke asmoa; baita zabaltzea ere, bidegorria gehituta. Igogailua ere izango luke, irisgarritasun unibertsala bermatzeko. EH Bilduren ustez, egokia izan daiteke Portuko Agintaritzak egindako proposamena. Edonola, behar beharrezkoa da lehenbailehen ematea irtenbideren bat inguru horrek duen irisgarritasun gabezia larriari.

Inguru horri lotuta ere, iazko martxoan, Eusko Trenbide Sareak (ETS) lehen urratsak egin zituen kontratatzeke Pasaiaiko porturako sarbidea idazteke proiektua. ETSren asmoa da Donostia-Hendaia linea Pasaiaiko portuan sartzeko, eta horretarako, konexioa Herrerako geltokia igarota egitea. Horren arabera, ETSren tren azpiegitura osagai siderurgikoen zamalanetarako kaietaraino (Buenavista kaiko 4. nabea) iritsiko da zabalera metrikoarekin, garatu beharreko ibilbide berrietan UIC zabalera sartzeko aukera ere aurreikusten delarik. EH Bilduren ustez, aurreikustekoa da ETSren lanek eraldatu egingo dutela, hein batean bada ere, Escalerillas ingurua. Horregatik, egokia eta are beharrezkoa iruditzen zaigu aukera hau baliatzea Escalerillaseko azpiegitura eraldatzeko, herritarrentzako irisgarria izateke moduan, baita Herreratik porturaino Pasaiaiko portuko zeharbidearekiko paralelo joango den trenbide azpiegitura estalpean eramateko.

Horregatik, EH BILDU udal taldeak honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du:

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Pasaiaiko Portuko Agintaritzari baliatu dezala Eusko Trenbide Sareak Donostia-Hendaia trenbidea Pasaiaiko portura sartzeko ekimena abiatu izana aztertzeko Escalerillaseko pasabidea irisgarri egiteko eta eraldatzeko proposatua duen proiektua agintaldi honetan zehazteko aukera.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Eusko Trenbide Sareari eta Pasaiaiko Portuko Agintaritzari ahaleginak koordinatu ditzaten, aipatu bi egitasmoak, Escalerillaseko pasabidea eraldatzea eta ETSren trenbide sarea Pasaiaiko portuan sartzea, bateratsu eta ikuspegi integratu bat izanik egin daitezzen, baliabide ekonomikoak eta epeak ahalik eta modu eraginkorrean erabiltzeko, eta Pasaiaiko badiako inguru horri irtenbide osotasunezkoa, jasangarria eta eguneratua emateko.

Donostian, 2022ko martxoaren 4an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldearen bozeramalea